

Joseba Intxausti. *Euskararen Historia Soziala (EHS) Argibide bibliografikoak (Lehen emanaldia)*. Euskaltzaindia, Etxeberri bilduma (EHS), Bilbo, 2011.

Lionel Joly  
Euskararen Historia Soziala. Euskaltzaindia  
Helbide elektronikoa: [ehs@euskaltzaindia.net](mailto:ehs@euskaltzaindia.net)

Joseba Intxaustiren argitalpen berria aurkeztu baino lehen liburua bere testuinguru epistemologikoan kokatzea komeni da. Hizkuntzei buruzko ikerketa sistematiko eta zientifikoa, aro modernoan, Ferdinand de Saussure-ren klase-emankizunekin eta, bera hil ondoren, argitara emandako *Cours de linguistique générale* famatuarekin hasi zela esan ohi da. Horren aurretik, oro har, eta euskararen historiarako bereziki, berebiziko garrantzia izan zuen Wilhem Von Humboldt-ek hizkuntzen azterketaren historian. Hala ere, hizkuntzaren definizioan eta hizkuntzalaritzaren eremu zientifikoaren mugatze-lanean iraultza sakona eragin zuen Saussurek.

Hizkuntzaren barne-osaerari berebiziko garrantzia eman zion Saussureren estrukturalismo linguistikoak. XX. mendearen erdialdean, 60. Hamarkadan, beste iraultza bat gertatu zen hizkuntzaren ikerketaren munduan. Hizkuntzaren alde sozialari toki berezia eman zitzaion orduan: hizkuntzaren barne-osaera nabarmendu beharrean, ordura arte egin ohi zen moduan, hizkuntzak beren gizarte-moldaeran aztertzen hasi ziren ikertzaile batzuk, tartean Joshua A. Fishman, John Gumperz, Einar Haugen, William Labov, Dell Hymes edota Charles Ferguson.

Epistemologiaren historian aldakuntza anitz sortu ziren garai hartan. Horrela, historiografiari dagokionez *La Méditerranée et le monde méditerranéen à l'époque de Philippe II* argitaratu zuen Braudel-ek 1949an, historiaren objektua nabarmenki eraldatuz. Horrezaz gainera, geografia eta gizarte-zientziak gero eta leku nabarmenagoa eskuratzen hasi ziren historian. Korrante honetan sartzen dira hainbat autore garrantzitsu: tartean George Duby edota Emmanuel Le Roy Ladurie. Beste gizarte-zientzietan ere aldaketa handiak suertatu ziren. Psikologia sozialean, adibidez, aldaketa-garaia heldu zen Serge Moscovici-rekin.

Testuinguru epistemologiko horretan txikiari, erregeari baino areago jende xeheari, egitura prestigiotsuari edo nagusiar baino nabarmenago minorizatuari, ordura arte ez bezalako garrantzia ematen hasi zitzaion hainbat esparrutan. Baita hizkuntzalaritzan ere, hizkuntzaren barne-osaerari baino gizakiak hizkuntzaz egiten dituen erabilerei garrantzi handiagoa eskainiz: erabiltzen diren egiturak zeintzuk diren aztertuz, zergatik erabiltzen diren, klaseen arteko ezberdintasunak analizatuz, gizartearen eta hizkuntzaren arteko loturak aztertuz etab.

Euskararen historia-azterketan mugarri argia izandako liburua argitaratu zuen Euskaltzaindiak 70. hamarkadaren bukaeran: “Euskararen liburu zuria”.

Soziolinguistikaren eta hizkuntzei buruzko historiografiaren azken hamarkadetako hainbat ekarpen zientifiko aplikatzen saiatu ziren bere egileak, euskararen egoera eta historia harturik aztergai. Ezaguna denez, Euskaltzaindiak lan nabarmena egin du hizkuntzaren barne-osaerari buruzko ikerketak burutzeko, baina hizkuntzaren alde soziala ere beti gogoan eduki izan du<sup>1</sup>.

Euskaltzaindiak kaleratu berri duen liburu hau ikerketa-lerro horren barruan kokatzen da, eta bere aurkezpenaren interesa bikoitza da. Liburu berria ez ezik liburu-sorta berri bat hasten da, izan ere, J. Intxaustiren argitalpen honekin.

Joseba Intxaustik eskaintzen digun liburuak *Euskararen Historia Soziala (EHS) Argibide bibliografikoak (Lehen emanaldia)* du izena. Argitalpen horrek Euskaltzaindiak ildo zientifiko hori garatzeko duen borondate argia adierazten digu. Euskararen Historia Soziala (EHS) izeneko egitasmoa 2007an sortu zuen Euskaltzaindiak<sup>2</sup>, eta Intxaustiren liburu hau Euskaltzaindiaren liburu-sorta berri baten aurreneko emaitza da: Euskararen Historia Sozialari eskainitako liburu-sortaren lehen emaitza, hain zuzen ere.

Izenburuak argi adierazten duenez, J. Intxaustiren argitalpenaren helburua Euskararen Historia Sozialari argibide bibliografikoak eskaintzea da. Beste era batera esanda, Euskararen Historia Sozialaz interesa duenari gai zabal eta landu arin horri buruzko tresna bibliografiko baliagarriak eskaintzea.

Ohorezko euskaltzain dugun Joseba Intxaustiren liburuak lau zati nagusi ditu. Aurreneko zatian liburuaren (eta, oro har, liburu-sortaren) aurkezpena egiten du euskaltzainburuak. J. Intxaustiren hitzurre luze osatzen du bigarren zatia: liburuaren nondik norakoak azaltzen ditu bertan. Hirugarren zatian Euskararen Historia Soziala argitzeko baliagarria den zerrenda bibliografikoa eskaintzen zaigu, eta liburuaren azken zatian gaien arabera aurkibide alfabetikoa. Iruzkina honetan liburuaren hiru zati nagusiak aipatuko dira: 1) hitzaurrea, 2) zerrenda bibliografikoa eta 3) aurkibide alfabetikoa.

#### 1) Hitzaurrea.

Hitzaurrea bost zatitan banatua dator. Aurrenekoan bibliografiaren nondik norakoak azaltzen dira: liburuak euskal tradizio bibliografikoan kokatzen du bertan Intxaustik. Hizkuntzaren barne-ikerketari zor zaien garrantzia azpimarratzen du bertan, eta bere liburuak soziologiaren eta soziolinguistikaren iker-eremuen testuinguruan kokatzen du. Historialaria izanik, eta liburuak lagundu eta bultzatu nahi dituen ikerketak historikoak izanik, hizkuntzaren kronologia historiko-soziala eskaintzen du autoreak. Bederatzi aro giltzarri edo ikerketa-eremu nagusi bereizten ditu kronologiari dagokionez, une bakoitza bere ustez zergatik giltzarri den, eta ikerketarako interes nagusiak zeintzuk diren, azalduz:

Hona Joseba Intxaustik bereizten dituen bederatzi aroak:

1) Historiaurrea, 2) Eusko-iberismoa, 3) Lehen indo-europarrak eta zeltak, 4) Erroma aurreko errealitatea, 5) Erromatartzea eta latinaren presentzia, 6) Kristautzearen prozesua, 7) Erdiaroa eta erromantzeen garapena, eta 9) Aro Moderno eta garaikideak.

Hitzaurrearen aurreneko zatia bukatzeko Euskararen historia sozialaren inguruan oinarritzko apunteak jasotzen ditu Joseba Intxaustik. Zerrenda bibliografikoan

Hizkuntzen Historia Sozialaren teorikoen argitalpenak berariaz jaso egin direla dio, euskararen kasuan aitzindari izan diren lanak ere jasotzen saiatu dela azpimarratuz.

Liburuaren nondik norakoak aurkeztu ondoren, liburua osatzeko zer aztertu duen, bilaketa bibliografikoak non egin dituen eta, azkenik, zein artxibo eta biblioteca aztertu dituen zehazten du autoreak hitzaurrearen bigarren zatian. Bibliografia-lan hau zertan oinarritzen den argi adierazten du autoreak: hizkuntzaren biziaren eta zoriaren interesatua egonik gai-alor hori bereziki landu duen historialari baten lan-bizitzan. Exhaustibotasuna lortzea alor honetan ezinezkoa dela azpimarratzen du, batetik. Bestetik, berriz, lanaren hutsuneak non aurkitzen diren azaltzen digu, eta etorkizunean EHSi buruzko bibliografia hau osatzeko hainbat proposamen eskaintzen.

Hitzaurrearen hirugarren atalean, bestetik, zerrenda bibliografikoaren edukia deskribatzen du egileak. Erreferentzia bakoitzerako hiru albiste-eremu desberdin zehazten saiatu da bere liburuan: 1) Erreferentzia bakoitzaren xehetasun bibliografikoak, 2) Erreferentzia bakoitza zein liburutegitan aurki daitekeen, 3) Erreferentzia hori internet-en eskuragarria baldin bada, eta hala da kasu askotan, bere esteka eskaini da.

Zerrenda bibliografikoaren aurkezpena egin ondoren, liburuaren azken zatiaren aurkezpena egiten du Intxaustik. Bertan, erreferentziak gaika antolatuta daude. Hitzaurrea bukatzeko, liburua osatzeko orduan lankide izan dituenak eta han-hemengo laguntzak berariaz aipatzen ditu.

## 2) Zerrenda bibliografikoa

Hirugarren zatiak osatzen du liburuaren parterik handiena: 37. orrialdetik 432. orrialdera doan zerrenda bibliografikoa. 4425 erreferentzia zerrendatuta daude bertan. Zerrenda zabal hori aztertu ondoren, bibliografia hau osatzeko behar izan den denboraz, eskarmentuaz eta pazientziaren erraz ohartzen gara. Euskal Herriko hizkuntzen historia soziala egiteko argibide bibliografiko horiek oso aberatsak dira eta Intxaustik egin duen lana bihotzez eskertuko du hizkuntza, historia edota soziologia lantzen dituen edozein ikerlarik.

Hitzaurre osoan zehar, behin eta berriro, liburuaren behin-behinekotasuna eta exhaustibotasun-falta azpimarratzen ditu egileak. Liburuaren bertsio digitalaren berebiziko interesa agerian husten du, bestalde. EHSri eskainitako bibliografia honen “mugak” (11.or) argiro azpimarratzen ditu autoreak, mugaren arrazoiak bereziki “denbora” eta “lan modua” izan direlarik. Lankidetzaren anitz izan badu ere egileak, bere lana burutzeko, bere eskarmentu pertsonalean oinarritzen du oraingo bibliografia hau. Orokorrean EHSaz dagoen bibliografia “sakabanatuegia” (16.or) izanik “eskuragarriagoa izan dadin dator” (16.or) argitaratu bere ekarpena eta, neurri handi batean, bere helburua ondo lortzen du autoreak. Izan ere, lan pertsonala izanik bere mugak ditu bibliografia honek, baina J. Intxausti bezalako historialari batek egin izanak kalitatea eta sendotasuna segurtatu dio lanari.

Exhaustibotasun falta lan moduari berari egotzen badiu ere nagusiki Intxaustik, irakurlea argi konturatzen da gabeziak baino gehiago balioak dituela Intxaustiren argitalpenak berekin. Argitzen dituen eremuak asko dira. Gainera, zerrenda bibliografikoa aztertzean, exhaustibotasun falta hori lan egiteko moduari baino gehiago helburuari berari lotuta dagoela konturatzen da irakurlea. Izan ere, Intxaustiren bibliografiaren helburua hain zabala izanik eta barruan kokatzen den materiala hainbat

eratakoa, ezinezkoa dirudi behin betiko bibliografiarik aurreikustea tamaina horretako esparruan. Oraingo bibliografia hau osatuz joan beharko da gero, nahitanahiez. Internet-en eskura dagoen materiala etengabe aberastuz doa gainera, etengabe. Joseba Intxaustiren bibliografia osatzeko arrazoi bat ere izan liteke hori. Liburuan hartarako estekarik agertzen ez bada ere, adibidez, *Karmel* edo *Lapurdum* aldizkarien artikuluguztiak interneten eskuragarri daude gaur egun. Joera horrek gero ere aurrera egingo duela pentsa liteke.

Zerrenda bibliografikoaren aniztasuna azpimarratu behar da, bestalde. Hiru motatako edukiak aurkitzen dira bertan, gutxienez:

- 1) Hizkuntzen historia sozialerako maila metodologikoan interesgarriak diren liburuak (adibidez, P. Burke-enak) edo aztergai honekin lotura zuzena dutenak (adibidez lan soziolinguistikoak: Fishman etab). Batzuetan irakurlea konturatuko da sarrera batzuk oso orokorrak direla (adibidez Gabunia, Eagleton, Durkacz). Bestalde, bibliografiaren asmoa hain zabala izanik normal den bezala, beste batzuk falta dira (adibidez: Cotelli, Willemins, Vandenbusche, Conde Silvestre, etab.).
- 2) Nazioartean egin diren hizkuntzen historia sozial famatuena eta argigarriena (adibidez Kirsch edo Ruiz).
- 3) Euskararen historia soziala argitzeko baliagarriak diren dokumentuak. Seguruenik hau da bibliografiaren interes eta aberastasun handiena. Hiru azpiatal ezberdin ahal izango genituzke atal honetan:
  1. Euskararen Historia Soziala osatzeko lehen mailako iturriak direnak, iturri historikoak. Adibidez Larramendiren lanak edota Etxeparenenak.
  2. Euskararen historia sozialaz dagoeneko egin diren ikerketak, adibidez Mitxelena, Jimeno Jurio, Zalbide edo Intxaustirenak berarenak.
  3. Euskararen historia sozialerako argigarriak izan daitezkeen informazioak. Hizkuntzaren soziologiak hizkuntzaren eta soziologiaren arteko loturak egiteko helburua duenez, interesgarria izan daitekeen informazioa mota askotarikoa da eta potentzialki gizarteari buruzko edozein informaziok interesa eduki dezake. Adibidez, EHSrako interes zuzena izan dezake Miranda Martínezen *Aspectos demográficos de la sociedad navarra altomedieval*. Datu-biltze horrek bibliografia honen eremua asko zabaltzen du noski. Mota horretako hainbat lan jasotzen du Intxaustik bere bibliografian.

Bistan denez, bibliografiaren helburua eta iker-eremua hain zabala izanik exhaustibotasuna aldarrikatzea ezinezkoa da. Hitzaurrean behin eta berriz azpimarratzen ditu horregatik bere bibliografiaren mugak eta lan honen behin-behinekotasuna. Hori kontuan hartzekoa izanik ere, hemen azpimarratu nahi eta behar dena ere txanponaren beste aldea da: bere balio berezia. Izan ere, modu argian agertzen dira EHS argitzeko baliagarriak diren 4425 iturri bibliografiko, askotan dokumentua interneten bilatzeko esteka jasota dago gainera, edota liburua zein liburutegietan aurki daitezkeen argi adierazten da.

Azken baliabide horien mamia aprobetxatzeko, liburuaren interneteko bertsioa oso baliagarria izango da. Espero dezagun bibliografia-lan hau laster izango dela interneten, artikuluetara eta liburuetara jotzeko lotura dagoenean zail samarra suertatzen baita bestela internet-eko estekak erabiltzea. Autoreak hitzaurrean aipatzen duen moduan, zerrenda bibliografikoaren lehen emanaldia da bere liburua. Pentsatzekoa da interneteko bertsioa osatuz joango dela. Bereziki faltan botatzen dira EHSren oinarritzko iturri metodologiko batzuk eta hainbat nazioarteko lan, tartean ingelesezko

argitalpen batzuk. Liburuaren interneteko bertsioa argitaratzen denean, ez litzateke txarra edukien arteko banaketa moduren bat egitea, adibidez gorago proposatu duguna.

### 3) Gaien araberako aurkibide alfabetikoa

Liburuaren azken zatian gaien araberako aurkibide alfabetikoa landu du J. Intxaustik. Ikerlariarentzat oso tresna baliagarria da aurkibide hori. Alfabetikoki bilatu nahi dituen sarrerak ezagutzen ez baditu, edo autoreen izenak ezagutzen ez baditu, ikerlariak nahikoa du aztertu nahi duen gaia aurkibidean bilatzea. Sarrera jakin batzuk topatuko ditu bertan, Intxaustik zehaztu dituena hain zuzen ere. Sarrera gehienetan, gainera, parentesi batzuen artean, azpigaia ere zehaztu digu Intxaustik.

Gaikako zerrenda hori askotarikoa da. Bere azterketa egitean irakurlea erraz konturatuko da, soziolinguista batena baino areago historialari baten lana dela eskuartean duguna. Gaikako lanketa hori historikoa da lehen-lehenik, neurri on batean soziologikoa gero eta azkenik, maila mugatuagoan, soziolinguistikoa.

Xehetasun handiz egin du Joseba Intxaustik lan. Zehaztu dituen gai-sarrerak sailkatzea ez da erraza. Horien aberastasunaz konturatzeko, hamahiru multzotan sailkatu ditugu gai-sarrera horiek. Horrela, bere sarreren artean topatzen dira honako hauek:

1. EHSrako garrantzitsuenak diren autoreak eta ikerlariak (adibidez mota honetako gai sarrerak aurkitzen dira: Larramendi, Mitxelena, Jimeno Jurio...) eta erakundeak (Euskaltzaindia, UZEI, Eusko ikaskuntza...).
2. Ereku geografikoak eta geografiko-historikoak: Araba, Gipuzkoa, Euskal Herria, Nafarroa, Pirinioak...
3. Aro historikoak: antzinatea, erromatartzea, Erdi aroa, Ernazimentua, Iraultza frantsesa...
4. Kontzeptu sozio-politikoak: Eliza, erakundeak, ekonomia, udalak, nazionalismoa...
5. kontzeptu linguistikoak: euskara, euskara batua, onomastika, toponimia...
6. Kontzeptu soziolinguistikoak: soziolinguistika, diglosia, plangintza, ukipen hizkuntza... Bibliografia honen hurrengo emanaldietan gehien landu beharko den eremua dirudi honek.
7. Lehen mailako iturriak bilatzeko sarrerak: artxiboak, agiriak, testuak, iturriak, gutunak...
8. Euskararen inguruko kontzeptuak: euskara, euskara batua, Euskaltzaindia, euskalgintza, euskalaritza...
9. Hezkuntzako mundua: eskola, elebitasuna, unibertsitatea...
10. Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa, gaskoia, latina, katalana...
11. Elizaren kontzeptuak: katixima, biblia, eliza, kristautzea, kaputxinoak...
12. Ideologikoak diren kontzeptuak: ideiak, ideologiak, pentsamendua...
13. Eta noski beste multzo orokor eta anitz bat aurreko zerrendan tokirik ez duena: kazetaritza, medikuntza, hiletak, haur-literatura etab.

Hemen 13 multzo nagusi bereizi ditugu Intxaustik proposatzen dituen gai-sarrerak multzokatzeko. Liburuan, noski, ez daude horrela sailkatuta, alfabetikoki baizik. Oro har, gaien sarrera-kopurua oso handia da. Ikerlari askori baliagarria gerta dakioke beraz, alde horretatik. Gai-sarreren artean alde nabarmenak daude sarrera bibliografikoen kopuruei dagokienez. Batzuk oso garatuak daude (esate baterako *literatura*) eta beste batzuk lanketa berezi bat eskatuko dute etorkizunean. Azken kasu honetan aurkitzen dira soziolinguistikoak diren kontzeptuak (adibidez *diglosia*).

Intxaustiren liburuaren azken atal hau oso aberatsa da: ikertzaile askori orain arte eduki ez duen lan-tresna baliagarria eskuratzen dio. Lan-tresna perfekturik ez dagoenez, honek ere baditu bere mugak: gaikako aurkibide alfabetikoaz gainera interesgarria izango zen zerrenda bibliografikoaren sarrera bakoitzerako hitz gako batzuk ezartzea. Horrela, seguruenik, gaikako aurkibidea aberatsagoa izango zen eta zerrenda bibliografikoa aztertzean liburu bakoitzaren eduki nagusien inguruko informazio interesgarria eskueran izan ahal izango zuen irakurleak. Bibliografia hobetzeko erraztasuna emango zuen horrek, gainera.

Laburbilduz, J. Intxaustik kaleratu berri duen liburua oso tresna baliagarria da ikerlariarentzat eta euskalgintzan diharduen hainbatentzat, oro har. Orain arte ez zegoen horrelako bildumarik, eta hutsune horri modu ederrean egiten dio liburuak aurre. Bibliografiaren helburua hain zabala izanik, etorkizunean osatu ahal izango da eta bere gaikako aurkibidea findu, bereziki sarrera soziolinguistikoei dagokienez eta gai bakoitzean dagoen sarrera-kopuruari dagokionez. Espero dezagun Intxaustiren liburua sarean jarriko dela laster, ohorezko euskaltzainaren lanari bere uzta oparoa atera ahal diezaiozun ikerlariok, bertan agertzen diren estekak erabiliz.

<sup>1</sup>Ikus Intxausti J., 2007, “Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008) Euskararen Historia Sozialerako Proiektua”  
in *Euskera*, 52, 239-267.

<sup>2</sup>Ikus Intxausti J. opus cit.